BILBOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BILBAO | Prentsa Kabinetea Gabinete de Prensa | Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao
Tel. 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 / 94 420 59 93 / 94 420 30 93 | Fax: 94 420 52 16 | prensa@alcaldia.bilbao.eus | www.bilbao.eus

# BILBOKO UDALAK "BILBAO BALIOEN HIRIA SARIAK" EMATEKO AURRENEKO EDIZIORAKO DEIALDIA EGIN DU, BILBOKO BALIOEN AGIRIA GARATZEN ETA SUSTATZEN ERAKUNDEEK EGINDAKO LANA AITORTZEKO

- **Udalak 3 sari emango ditu, kategoria bakoitzean bat: irabazi asmorik gabeko erakundeak eta elkarteak; ikastetxeak eta enpresak, saltokiak, ostalaritza edo elkargo profesionalak. Erakunde guztiek Bilbon izan behar dute egoitza. Saritutako proiektu bakoitzak 4.000 euro jasoko ditu, saritutako ekimenarekin zerikusia duten xedeetarako erabiliko dena.**
- **Interesa duten erakundeek 2018ko abenduren 17ra bitarteko epea dute proposamenak aurkezteko. Erregistro Orokorrean edota participacion@bilbao.eus helbide elektronikoan aurkeztuko dituzte. Proiektuak amaituta edota oso aurreratuta egongo dira.**
- **Sari hauek Bilbao Balioen Hiria proiektuaren barruan daude eta Balioen Garapenerako Planean aurreikusitako hiru ardatzetako bat eta hamabost ekimenetako bat dira; hain zuzen ere, Bilboko Balioen Agiria osatzen duten 17 balioak abiarazteko onartu da plan hori.**
- **Lehiaketaren oinarriak, erantsitak.**

*(Bilbon, 2018ko urriaren 31n)*.- Bilboko Udaleko Gobernu Batzordeak **"Bilbao Balioen Hiria Sariak"** emateko aurreneko ediziorako deialdia egin du gaur goizean egindako bileran. Sariketa honen helburua da Bilboko Balioen Agiria sustatzen lan egiten erakundeen lana aitortzea eta saritzea, agirian jasotzen diren 17 balioetakoren bat praktikan jartzeko ekimenak garatuta.

Sari hauek Balioen Agiriko Garapenerako Planean aurreikusitako hiru ardatzetako bat eta hamabost ekimenetako bat dira; hain zuzen ere, Bilboko Balioen Agiria osatzen duten balioak garatzeko eta sustatzeko onartu zen plan hori.

## KATEGORIAK ETA BALDINTZAK

Udalak 3 kategoria ezarri ditu, sari banarekin. **Saritutako proiektu bakoitzak 4.000 euro jasoko ditu,** saritutako ekimenarekin zerikusia duten xedeetarako erabiliko dena. Hortaz, guztira, 12.000 euro banatuko dira.
Hauek proiektuak garatzeko ezarri diren kategoriak:

- **irabazi asmorik gabeko Bilboko erakundeak eta elkarteak**; Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda egon behar dute horiek.
- **Bilboko ikastetxeak;** Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilerreko eta erdi-mailako graduko ikasleen parte-hartzea izan duten proiektuak izango dira.
- Urian kokatuta dauden **enpresak, saltokiak; ostalaritza edo elkargo profesionalak**.

Pertsonek eta erakundeek proiektuak aurkezteko epea hasiko da deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean eta amaitu 2018ko abenduaren 17an amaituko da (2018ko azaroaren lehenengo egunetan argitaratuko dela aurreikusita dago). Dokumentazioa posta elektronikoaren bidez bidali daiteke (participacion@bilbao.eus) edo bestela, Erregistro Orokorrean aurkeztu.

Ekimenak amaituta edota oso aurreratuta egongo dira eta hortaz, ez da onartuko oraindik gauzatzen hasi barik dagoen proposamenik ez ideia hutsa direnik.

Lehiaketako partaideek memoria teknikoa aurkeztu behar dute, gutxienez, datu hauekin: proiektuaren helburuak, proiektua zein baloreri lotuta doan, pertsonek edo taldeek egindako jarduerak, ekimenak zein lekutan garatu den eta emaitzen ebaluazioa. Gainera, egindako jarduerei buruzko ikus-entzunezkoak ere aurkez daitezke.
Lehiaketaren oinarriak, erantsitak.

## EPAIMAHAIA

Epaimahaiburua Alkatea izango da baina Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien Saileko zinegotziari eskuordetu ahal izango dio. Epaimahaian beste bost kide ere egongo dira: Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien Saileko ordezkari bat; Berdintasun, Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Saileko ordezkari bat, Euskara eta Hezkuntza Saileko beste bat eta Herritarren Kontseiluko ordezkari bi.

Epaimahaiak, sarituak aukeratzeko, kontuan hartuko ditu faktore hauek: ekimenaren helburuak eta horiek Balioen Agiriarekin duten lotura; proiektuaren sormena, originaltasuna eta izaera berritzailea; partaide-kopurua eta belaunaldien arteko izaera.

## BILBAO BALIOEN HIRIA

“Bilbao Balioen Hiria Sariak” Bilbao Balioen Hiria proiektuaren barruan daude. Bilboko Udalak sustatutako ekimen parte-hartzailea da baina, hasiera-hasieratik herritarren lankidetzari esker eratu eta garatua. Bilbao Balioen Hiriaren helburua da uria ezaguna eta aitortua izatea ez bakarrik birgaikuntza, berreskuratze eta eraldaketa ekonomikoagatik, baita beraren balioengatik ere. Helburua da erakundeen, era guztietako entitateen, enpresen, hedabideen, talde politikoen eta herritarren artean analisirako, elkarrizketarako, hausnarketarako eta lankidetzarako espazio bat sortzea.

Horren emaitza, 2018ko martxoan Udalbatzarrak Bilboko Balioen Agiria onartu zuen; datozen urteetan Uria eta bilbotarren elkarbizitza egituratu behar duten 17 balioak identifikatu ziren agiri horretan. Ildo horretan, uztailean Udaleko Gobernu Batzordeak Balioen Agiria garatzeko plana onartu zuen, agirian jasotako 17 balioak gauzatzeko ekintzak txertatzeko.

Pertsonek edo entitateek Bilboko Balioen Agiriarekin bat egiteko aukera daukate; horretarako, formulario erraz bat bete behar dute, Udalaren web orrian eta Bilbao Balioen Hiriaren web orrian eskuratuta.

Agiriarekin bat egiten dutenek agiriaren edukiaren eta muinarekin bat datozen jarrerak eta jokabideak izateko eta sustatzeko konpromisoa hartzen dute. Agirian jasota daude bilbotarren ustez Uriko elkarbizitzaren ardatz izan behar duten 17 balioak: Giza Eskubideen errespetua, justizia soziala, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna, elkartasuna, dibertsitatea eta inklusioa, konpromisoa, ingurumen arloko jasangarritasuna, elkarbizitza, identitatea, ahalegina, erantzunkidetasun, partaidetza, konfiantza, sormena, zintzotasuna, ilusioa eta osasuna.

# EL AYUNTAMIENTO CONVOCA LA PRIMERA EDICIÓN DE LOS "PREMIOS BILBAO BALIOEN HIRIA" PARA RECONOCER EL TRABAJO DE ENTIDADES QUE DESARROLLAN E IMPULSAN LA CARTA DE VALORES DE BILBAO

- **El Consistorio repartirá 3 premios, uno por cada una de las categorías establecidas: asociaciones y entidades sin ánimo de lucro, centros escolares, y empresas, comercios, hostelería o colegios profesionales. Todas las entidades deben ubicarse en Bilbao. Cada uno de los proyectos premiados recibirá 4.000 euros, que deberán destinar a fines relacionados con la iniciativa premiada.**
- **Las entidades interesadas tienen hasta el 17 de diciembre de 2018 para presentar sus propuestas en el mail de participacion@bilbao.eus o en el Registro Municipal. Todos los proyectos deben estar finalizados o en avanzado proceso de ejecución.**
- **Estos premios se enmarcan en el proyecto Bilbao Balioen Hiria y son uno de los tres ejes y una de las quince iniciativas que contempla el Plan de Desarrollo de Valores, aprobado para llevar a la práctica los 17 valores que integran la Carta de Valores de Bilbao.**
- **Bases del concurso, adjuntas.**

*(Bilbao, 31 de octubre de 2018)*.- La Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Bilbao celebrada esta mañana ha aprobado la convocatoria de la primera edición de los "**Premios Bilbao Balioen Hiria Sariak**". El objetivo de este certamen es premiar y reconocer la labor de las entidades que impulsan el contenido de la **Carta de Valores de Bilbao**, desarrollando iniciativas que lleven a la práctica alguno de los 17 valores que recoge este documento.

Estos premios son uno de los tres ejes estratégicos y una de las 15 acciones comprometidas en el **Plan de Desarrollo de la Carta de Valores**, aprobado para promocionar y desarrollar los valores que integran el documento.

## CATEGORIAS Y REQUISITOS

El Consistorio ha establecido **tres categorías y otorgará un premio por cada una de ellas. Los proyectos premiados recibirán 4.000 euros**, que deberán destinar a fines relacionados con la iniciativa premiada. Así, en total se repartirán 12.000 euros.
Las categorías establecidas son para proyectos desarrollados:

- en Bilbao por **asociaciones y entidades sin ánimo de lucro**, que se encuentren inscritas en el Registro de Entidades municipal.
- por **centros escolares bilbainos**, en los que hayan participado alumnado de enseñanza infantil, primaria o secundaria obligatoria, bachillerato y/o ciclo formativo de grado medio.

- por **empresas, comercios; hostelería o colegios profesionales**, que estén ubicados en la Villa.

Las personas y entidades interesadas en participar pueden presentar sus proyectos a partir del **día después de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia, prevista para los primeros días de noviembre y tendrán hasta el 17 de diciembre de 2018 para hacerlo**. La documentación se puede enviar por correo electrónico participacion@bilbao.eus o presentar en el Registro Municipal.

Las iniciativas deben estar ya realizadas o en avanzado proceso de implantación, así, no se admitirán propuestas que aún no se hayan iniciado o sean una idea.

Las y los participantes en este certamen deben presentar una memoria técnica en la que se describan los objetivos del proyecto, la identificación de los valores a los que se vincula, las actividades desarrolladas personas o grupos participantes, lugares en los que se ha desarrollado la iniciativa y la evaluación de los resultados, entre otros. Además, se pueden presentar materiales audiovisuales sobre las actividades realizadas.
Bases del concurso, adjuntas.

**JURADO**

La presidencia del jurado le corresponde al Alcalde, quien podrá delegar en la Concejala de Atención Ciudadana, Participación y Distritos. Además, el jurado estará compuesto por otras 5 personas vocales: una en representación del área de Atención Ciudadana, Participación y Distritos, otra del área de Igualdad, Cooperación, Convivencia y Fiestas, una tercera del área de Euskera y Educación y dos personas en representación del Consejo Cívico.

Para elegir los proyectos premiados el jurado tendrá en cuenta factores como los objetivos de la iniciativa y su vinculación con la Carta de Valores, la creatividad, la originalidad y el carácter innovador del proyecto, así como el número de personas participantes o el carácter intergeneracional de la iniciativa.

**BILBAO BALIOEN HIRIA**

Los “Premios Bilbao Balioen Hiria Sariak” se enmarcan en el proyecto Bilbao Balioen Hiria, una iniciativa participativa, impulsada por el Ayuntamiento de Bilbao, pero construida y desarrollada, desde un principio, en colaboración de la ciudadanía. Bilbao Balioen Hiria tiene como objetivo que la Villa sea conocida y reconocida no solo por su importante proceso de regeneración, recuperación y transformación económica y urbana, sino también por sus valores. Se trata de crear un espacio de análisis, dialogo, reflexión y trabajo colaborativo entre instituciones, entidades de toda índole, empresas, medios de comunicación, grupos políticos y ciudadanía en general.

Como resultado de este proyecto en marzo de 2018 el Pleno del Ayuntamiento aprobó la Carta de Valores de Bilbao en la que se identifican los 17 valores que deben vertebrar la convivencia de la ciudadanía bilbaina y que deben guiar de la Villa en los próximos años. En esta línea, el pasado mes de julio, la Junta de Gobierno del Consistorio aprobó el Plan de Desarrollo de la Carta de Valores, para implementar acciones que materialicen los 17 valores del documento.

Toda persona o entidad que lo desee puede **adherirse a la Carta de Valores** rellenando un sencillo formulario online disponible tanto en la página web del Consistorio como en la de Bilbao Balioen Hiria.

Quien se adhiera a esta Carta asume el compromiso de mantener, potenciar y promover actitudes y comportamientos acordes al espíritu y contenido de este documento, que plasma los 17 valores, que según las y los bilbainos, deben vertebrar la convivencia de la Villa, -respeto a los Derechos Humanos, justicia social, igualdad entre mujeres y hombres, solidaridad, diversidad e inclusión, compromiso, sostenibilidad medioambiental, convivencia, identidad, esfuerzo, corresponsabilidad, participación, confianza, creatividad, honestidad, ilusión y salud-.